

Nafarroako Lanbide Heziketako PLAN ESTRATEGIKOA

2017-2020

Urteko Jarraipen Txostena 2018



Lanbide
Heziketa
NAFARROA

NAFARROAKO LANBIDE HEZIKETAREN PLAN ESTRATEGIKOA - 2017/2020 URTEKO JARRAIPEN TXOSTENA 2018

Nafarroako Lanbide Heziketaren Plan Estrategikoa Gobernuaren 2018ko abuztuaren 29ko erabakiaren bidez onetsi zen, helburu nagusia izanik erantzuna ematea Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategian (S3) planteatutako erronkei, ezagutzan oinarritutako ekonomia bateranzko eskualdeko garapen eredu gisa, gainera, oso presente edukiz zein erantzukizun garrantzitsua duen lanbide heziketaren sistemak, prestakuntzak gizartearen eta hezkuntzaren aldetik duen osagaiari dagokionez eta gure komunitatean gizartearen eta lurraldearen kohesioari ekarpena erabakigarria egin beharri dagokionez.

Plana hiru jarduketa ardatz estrategikoren inguruan egituratu zen:

- 1. ardatza: Lanbide Heziketa *Navarra S3* espezializazio adimentsuaren estrategia euskarri izatea.
- 2. ardatza: Gure gizartearen kohesioa eta jasangarritasuna sendotzeari egindako ekarpena.
- 3. ardatza: Lanbide Heziketa indartu eta etengabe eguneratzea.

Hiru ardatz hauetan garatu beharreko 16 helburu eta 57 jarduketa jasotzen dira, beren berariazko inpaktu-adierazleekin.

Plan Estrategikoaren esparruan garatutzen diren jarduketak Lanbide Heziketaren eremura hertsiki mugatzen ez badira ere, agerikoa da ikasturtearen antolaketa kronologikoak eragin erabakigarria duela plan honetan planteatutako helburuen emaitzetako asko eskuratzeko moduan. Horregatik, txosten honen aurkezpenaren egiturak hitzez hitzeko aipua egiten dio Plan Estrategikoaren dokumentu publikoan planteatutakoari; aldiz, orain arte egikaritutakoaren emaitzak modu diskurtsiboagoan aurkezten dira, haien interpretazioa errazagoa izan dadin eta egoki iritzitako ñabardurak eta argipenak sartu ahal daitezen.

Hurrengo orrialdeetan Nafarroako Lanbide Heziketaren 2017/2020 Plan Estrategikoa egikaritzearen inguruko informazioa bildu da, hura definitu zuten hiru ardatz estrategikoen arabera egituratuta.



1. ARDATZA: Lanbide Heziketa, Nafarroa S3 espezializazio adimentsuaren estrategiaren euskarri.

Ardatz honek jasotzen ditu heldu beharreko helburuak eta gauzatu beharreko jarduketak, prestakuntzaren eskaintzak lotura izan dezan Nafarroa S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategian lehentasunezko zatitza jotzen diren produkzio arloen beharrekin.

1.1. helburua

Nafarroa S3 Estrategian lehentasunezko zatitza jotako jarduera ekonomikoko arloetan Lanbide Heziketaren gaineko baliabideak handitzea

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2017	2018	2019	2020
Lanbide Heziketaren aurrekontuaren ehunekoa Nafarroa S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategiako lehentasunezko jarduera arloetan.		%60	%70	%75	% 80
Arlo horretan prestakuntza zikloak egiten dituzten ikasleak.		7622	8170	8872	9340
Nafarroa S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren eremuekin lotutako prestakuntza ikastaroen kopurua Lanbide Heziketako ikastetxeetan.		55	87	105	120

Lehen adierazleari dagokionez, adierazgarritzat jo da S3n definitutako arlo estrategikoekin lotutako zuzkidurak dituzten ikastetxeen ekipamenduari emandako aurrekontuaren ehunekoa sartzea. Alde horretatik, 2017/2018 ikasturtean, aurrekontuaren % 75 bideratu zen S3rekin lotutako arloen ekipamenduetara, eta 2018/2019 ikasturtean ehuneko hori hamar puntu handitu da.

S3k lehentasunezko zatitza jotako jardueren arloetako prestakuntza zikloak egiten dituzten ikasleei dagokienez, 2017/2018 ikasturtean ehuneko hori % 58,74 izan zen, eta 2018/2019 ikasturtearen lehen hiru hilabeteetan eskuragarri zeuden datuek % 58,96 dakarte, hau da, nahi zena baino hazkunde txikiagoa. Inpaktuaren adierazleetan proposatutako balioekiko itxurazko desadostasun horiren arrazoia da azken horiek S3n sartutako familia profesionaletan ikasketak egiten dituzten ikasleen zenbaki absolutu moduan aurkeztu izana, eta txosten honetan nahiago izan da informazioa zehaztea, espezializazio adimentsuaren estrategiarekin berariaz lotutako prestakuntza zikloak egiten dituzten ikasleen ehunekoa ekarrita.

Enplegurako prestakuntzari dagokionez, Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema arautzen duen irailaren 9ko 30/2015 Legearen garapenak interpretazio rrtabidatuak izan ditu, bereziki hezkuntza administrazioak lehia araubidean parte hartzeari dagokionez. Horrenbestez, prestakuntzaren eskaintza mota hori egikaritzea ezin izan da garatu nahi besteko hedapenez. Horrez gain, Nafarroako langabeen kopurua nabarmen jaisteak islatu egin da profesionaltasun egiaztagiriak lortzera bideratutako enplegurako prestakuntza ikastaroen eskaria jaistean. Ondorioz, eskaintza horrek eskari txikiagoa izan du.

Faktore horiek kontuan hartuta, Nafarroa S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategiako arloekin loturik Lanbide Heziketako ikastetxeetan 66 ikastaro eman ziren, egiazki, 2017an,



enplegurako prestakuntzaren arloan. 56 langabeei bideratuta zeuden, eta 10 lanean ari direnei. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak langabeen prestakuntzarako eskuragarri jarritako aurrekontuaren %91 exekutatu zen Dena den, arestian aurkeztutako arrazoiak tarteko, 2018an langabeendako ikastaroen kopurua 16ra murriztu da, eta aurrekontuaren %56 exekutatu, planteatutako helburuetatik urrun. Alderdi administratiboak argitzea eta enplegurako prestakuntzaren eskaintzaren tipologia berrorientatzea oso gai garrantzitsuak dira ekintza horiek berriz planteatutako helburuak lortzera bideratzeko.

Lehen helburu horren barnean definitutako jarduketa zehatzak jarraian adierazten direnak izan ziren:

- Lanbide Heziketa Nafarroa S3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategian ezarritako beharretara egokitzeko ikerlan bat egitea.
- Prestakuntzako ziklo eta espezialitate berriak sortzea, Nafarroa S3 Espezializazio Estrategia Adimentsuaren arloarekin lotuta.
- Prestakuntza curriculumak eguneratzea arlo horiekin lotutako Lanbide Heziketako zikloetan eta enplegurako prestakuntzako ikastaroetan.
- Lan munduko adituen parte hartzea sustatzea, S3an identifikatutako espezializazio arloetan eguneratzea errazteko.

Jarduketa horiek egikaritzeari dagokionez, elektromedikuntzaren sektorearen egoera aztertu da, Nafarroan arlo horietako ikasketa eskaintza bat ezar daitekeen ikusteko. Baloratu egin behar da oraindik.

Curriculumak eguneratzeari eta berrikusteari dagokionez, 2017an eta 2018an 16 egokitzapen egin ziren Estatuko curriculumaren gaineko oinarritzko araudia Nafarroako araudira egokitzeko. Horietako asko erabili dira hasierako lanbide heziketako eskaintza txertatzeko. 2017-2018 ikasturtean oinarritzko Lanbide Heziketako 5 ziklo, erdi mailako 7 ziklo eta goi mailako 6 ziklo txertatu ziren. Bestalde, 2018/2019 ikasturtean eskaintza berri moduan txertatu dira oinarritzko Lanbide Heziketako 6 ziklo, erdi mailako 5 ziklo eta goi mailako 10 ziklo. Ikasturte jakin batean Lanbide Heziketako zikloen eskaintzan inoiz egindako igoera handiena da.

Curriculumak eguneratzeari dagokionez, 2017an eta 2018an 72 curriculum aldatu dira, guztira, Lanbide Heziketako tituluetan, laneko arriskuak prebenitzeko oinarritzko prestakuntza egokia bermatzeko. Horrez gain, beste hiru eguneratu dira, hobeki egokitzeko merkatuaren beharretara, hiru sektoretako sei kanpo adituen laguntzarekin. Azken jarduketa mota horretan sakontzen hasi nahi da, Nafarroan eskaintzeko egokitzat jotako tituluen katalogoa ia agortuta dagoelako, eta hori izanzen litzateke jarduketa ildoan, Estatuko oinarritzko araudiaren bidez titulu gehiago onartzen ez diren bitartean.

Lanbide Heziketaren arloko adituek parte hartu dute aholkulari moduan, informazioa eta orientazioa emanaz produkzio eta zerbitzuen sektoreetako ezaugarriei eta eskariei buruz eta prestakuntza profilen inguruko gaien buruz, baita irakaskuntza zuzenaren alorrean ere. Azken alderdi horretan, 114 profesional espezialistak lagundu dute 2017/2018 ikasturtean. Irakaskuntza eman dute hainbat ikastetxetan eta prestakuntza ziklotan, eta beste ia 200 esku hartze egin dituzte, kolaborazio puntual moduan. 2018an, lanak hasi dira Lanbide Heziketako ikastetxeetan prestakuntza lanetan laguntzeko prest dauden adituen datu base bat egiteko.

1.2. helburua

Prestakuntza espezializatua bultzatu eta arintzea, ekoizpen eta zerbitzu sektoreen beharrei egokitzeko.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2017	2018	2019	2020
Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako ikastetxeetan emandako espezializazio ikastaroetan parte hartzen duen pertsona kopurua.		720	820	910	1000
Espezializazio ikastaroen kopurua		4	2	4	6

2017an, arestian erran den gisan, 10 espezializazio ikastaro egin dira Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxeetan. Guztira 167 parte hartzaile izan dituzte. 2018an ez da horrelako ikastarorik egin, baina bat diseinatu zen produktu biozidekin egindako tratamenduen arloan, Ingurumen Osasunaren zikloa egin dutenei bideratutakoa.

Helburu horren barnean definitutako jarduketa zehatzak jarraian adierazten dira:

- Lan merkatuaren eskariei eta aukerei agudo erantzuteko prestakuntza ekintzak.
- Hezkuntzako eta enpleguko administrazioak enpresen eta ikastetxeen arteko prestakuntza proiektu bateratuak garatzeko egindako elkarlana.
- Goi mailako hirugarren ikastaro bat txertatzea, arlo estrategikoetan prestakuntza espezializatuko ekintzak abiatzeko behar diren ikasleen gutxieneko kopuruak murriztuz.

Planteatutako ekintzei dagokienez, lan merkatuaren eskariei erantzutea izan da Nafarroako Lanbide Heziketaren hasierako katalogora ziklo berriak txertatzeko jarraibide nagusia. Horrela, beraz, ziklo hauek aipatzekoak dira: Produktu Grafiko Inprimatuaren Laguntzailea, Produktu Grafiko Interaktiboaren Laguntzailea, Urak Tratatzeko Sareen eta Estazioetakoa, Altzariak Instalatzekoa, Egokitzapen Fisikokoa eta Gizarte eta Kirol Animaziokoa, edo Turismoko Gida, Informazio eta Laguntzako, besteak beste. Enpleguaren arloan, nabarmendu beharra dago Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Nafarroan sortzen ari den sektore batek, industria sortzaile eta digitalenak, egindako eskariei emandako erantzun azkarra, animazio digitalaren arloko prestakuntza beharrei erantzuteko.

Espezializazioko hirugarren ikastaro bat txertatzeari dagokionez, oraingoz erabaki da hirugarren ikastaro bat ematea zenbait prestakuntza ibilbideri, bide bereko bigarren titulazio bat eskuratu ahal izateko, adibidez, hotz eta beroko instalazioetako teknikarien kasuan, ematen baitu Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioak espezializazioak laster arautuko dituela.

1.3. helburua

Enpresek ikasleen praktikekin eta Lanbide Heziketa dualarekin duten konpromisoa bultzatzea

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2017	2018	2019	2020
Languneetako Prestakuntzako ikasleak hartzen dituzten enpresen kopurua		1530	1650	1750	1800

Lanbide Heziketa Dualean parte hartzen duten enpresen kopurua	375	390	400	425
Lanbide Heziketa Dualean parte hartzen duten ikasleen kopurua	600	700	800	950
Prestakuntza dualean parte hartzen duten eta behar bereziak dituzten ikasle taldeen kopurua	-	2	3	4

Enpresako prestakuntza da Lanbide Heziketako ikasleak profesionalizatzeko funtsezko elementu bat, haien prestakuntza tekniko osatzen duelako eta eskolako testuinguruan eskuratzea zailagoa den beste gaitasun transbertsal batzuk eskuratzen direlako.

Eraginaren lehen adierazleari dagokionez, 2016/2017 ikasturtean 1.521 hitzarmen zeuden enpresekin, eta 1.624 izan ziren 2017/2018 ikasturtean, Lanbide Heziketako ikasleen hainbat prestakuntza modalitateetan laguntzeko.

Prestakuntza dualari dagokionez, 2017/2018 ikasturtean 549 lankidetzak hitzarmen egon ziren indarrean. Ikasleei dagokienez, 2017/2018 ikasturtean 641 ikasle egon ziren modalitate dualean matrikulatuta, 13 ikastetxetan. Ikasle horietatik 322 enpresako prestakuntza fasea garatzen egon ziren, Horrez gain, Lanbide Heziketa bereziko bi ikasle talde egon ziren modalitate dualean 2017/2018 ikasturtean. 2018/2019 ikasturtean, 777 ikasle matrikulatu dira.

Planean berrikuspen honen aldira helburu honetara bideratutako ekintzen artean daude honako hauek:

- Hezkuntzako administrazioak Lanbide Heziketa Duala bultzatzea.
- Enpresetako prestakuntza praktikak malgutzera, produkzio eta zerbitzu sektoreen eskarierara eta aukeretara egokitzeko.
- Prestakuntzako eta lagun egiteko ekintzak aplikatzea, berariaz praktiketako tutoreei eta enpresetako prestakuntza dualekoei bideratuta.
- Administrazioa eta enpresa publikoak inplikatzeko praktiketako ikasleei harrera egitean eta programak abian jartzean.
- Ikasleek prestakuntza zentroetan eta programetan praktikak egiteko elkarlana baloratzea lehiaketa publikoak adjudikatzean edo enpresei dirulaguntza publikoak ematean.
- Pizgarriak abian jartzea Lanbide Heziketa Dualean enpresen elkarlana sustatzeko.

Hain zuzen, hezkuntzako administrazioak nabarmen sustatu du Lanbide Heziketa Duala; izan ere, 2016/2017 ikasturtean % 25 igo zen Lanbide Heziketa dualeko zikloen eskaintza, aurreko ikasturtearekin alderatuta. Dena den, prestakuntza duala arautzeko arau baten zain gaudenez eta modalitate duala garatzeko aukerak malgutu behar direnez, bigarren jarduketan planteatzen zen gisan, gomendatu da jarrera zuzenagoa hartzea prestakuntza duala eskaintzean. Horregatik 2017/2018 ikasturteko eskaintza % 10 igo zen aurrekoarekin alderatuta.

Modalitate dualeko eskaintza mailaka aplikatzeak berekin dakar ikastetxeetako eta enpresetako tutoreei berariaz bideratutako prestakuntza espezifikoko ekintzak egitea. Ekintza horiek 2018ko azken lauhilekoan hasi dira, 24 irakasle prestatu baitira tutore funtzio horretarako.

Enpresek eta administrazio publikoek ere elkarlanerako konpromisoak hartu dituzte ikasleei prestakuntza praktikoa emateko. Horrela, 2017/2018 ikasturtean, administrazio publikoen esparruan, 4 prestakuntza programa garatu ziren, eta horietan 47 ikaslek hartu zuten parte. Beste bi ikaslek prestakuntza praktikoaren fasea enpresa publiko batean egin zuten.

Aipatutako azken bi jarduketak egiteko daude, baina aurreikusi da laguntza publikoen deialdi bat egitea, hurrengo urterako Lanbide Heziketa dualerako elkarlan proiektuak aurkezten dituzten enpresa txikientzat.

1.4. helburua

Lanbide Heziketak enpresen nazioartekotzean laguntzea.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2017	2018	2019	2020
Atzerrian prestakuntza egonaldiak egiten dituzten ikasleak		210	260	260	280
Atzerrian prestakuntza egonaldiak egiten dituzten irakasleak		15	25	45	60
Nafarroan prestakuntza praktiketan atzerriko ikasleak hartzen dituzten enpresen kopurua		20	60	100	120

Globalizazio eskaera dela eta, enpresek nazioartekotzeari heldu behar diote behar saihestezin moduan, eta horrek berekin dakar dimentsio hori Lanbide Heziketako ikasleen prestakuntzan sartu behar izatea. 2017/2018 ikasturtean, 173 ikaslek egin dituzte prestakuntza egonaldiak atzerrian, eta kopuru hori bilatutako helburua baino % 13 beherago gelditu da. Dena den, irakasleen kasuan, atzerriko prestakuntza egonaldietan 17 irakaslek hartu dute parte, hasieran planteatutakoek baino gehiagok. Bi mugikortasun mota horiek indartuko dira hurrengo urteetan.

Nafarroan atzerriko ikasleak hartzeari dagokionez, 2017/2018 ikasturteetan 30 prestakuntza egonaldi antolatu dira, eta horrek ezarritako helburuak puskaz gainditu ditu.

Helburu honekin batera doazen jarduketan honela zeuden definituta Plan Estrategikoan:

- Nazioarteko truke eta egonaldi ekintzak areagotzea, bi noranzkoetan, irakasleenak eta ikasleenak.
- Beste herrialde batzuekin prestakuntza hitzarmenak artikulatzea, ikasleek bere prestakuntzaren zati bat atzerrian egin ahal izateko.
- Nazioarteko programa eta proiektuetan parte hartzea, Estatuko eta atzerriko beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin elkarlanean.
- Prestakuntza praktiketako enpresa eta ikastetxe kolaboratzaileen nazioarteko sarea handitzea.
- Irakasleen eta ikasleen hizkuntza gaitasunak indartzea.

Lehen jarduketari dagokionez, aipatu dira ikasleen eta irakasleen egonaldien datuak, bai igorle moduan bai hartzaile moduan egindakoenak. Egonaldi horiek egiteko beharrezko akordioak handitu egin nahi dira, eta horretarako sinatu da aurten Europako beste herrialde batzuetako Lanbide Heziketako erakundeekin partzuergo bat egiteko hitzarmen bat, mugikortasun eta prestakuntza arloan lankidetzaz errazteko.

Halaber, nazioarteko hiru proiektutan hartu da parte, Estatuko eta atzerriko beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin elkarlanean: Lanbide Heziketako ikasleen mugez gaidiko mugikortasun programa bat (Pyrene), Euskadiren, Nafarroaren, Aragoiren, Kataluniaren, Akitaniaren eta Okzitaniaren artean; beste proiektu bat (JJC), Lanbide Heziketako maila

baxuenetako ikasleek eskola uztea saihesteko; eta hirugarrena, (CREHUB), Lanbide Heziketari lotutako enpresa kultural eta sortzaileen garapena sustatzen duena. Horri gaineratu behar zaio nazioarteko proiektuetan beste zentro batzuek ere elkarlanak egitea, adibidez, COOPWOOD (egurraren sektorea).

Gaur egun, atzerrian ezarritako Nafarroako enprekin nazioartekotze proiektuetako elkarlana sustatzen ari da.

Jarduera horiek garatzeko, ezinbestekoa da European lankide sarea izatea. 2017/2018 ikasturte honetan hiru bazkide gehiagorekin antolatzen dira kanpoko prestakuntza egonaldiak (Alemania, Finlandia eta Italia), eta 87 enpresa gehiagok kolaboratzea lortu da, European Lanbide Heziketako ikasleak hartzeko.

Mugikortasun ekintzak indartu egin dira, parte hartzaileendako hizkuntza prestakuntzaren bitartez. Horretarako, bertaratu beharreko bi ikastaro egin dira Lanbide Heziketako ikastetxeetan, eta 143 lizentzia izapidetu dira Erasmus beka lortzen duten ikasleei sarean hizkuntza prestakuntza emateko.

1.5. helburua

Sormena, ekimenerako adorea eta berrikuntza indartzea Lanbide Heziketan

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko	2017	2018	2019	2020
Berrikuntza teknologikoko proiektuen kopurua		10	13	13	15
Arlo horietan abian jarritako ekimenen kopurua		5	7	7	7
Sorkuntza, ekintzailtza eta berrikuntza ekintzetan parte hartzen duten ikastetxeen ehunekoak		1	1	2	3

Honako hauek ziren Plan Estrategikoaren arlo horretan planteatutako jarduketak:

- Ekintzailtzaren, sorkuntzaren eta berrikuntza aplikatuaren arloetako proiektuak sustatzea.
- Beste erakunde batzuekin parte hartzea sorkuntza, ekintzailtza eta berrikuntza teknologiko eta metodologikoko proiektuetan.
- Deialdi sistematikoak egitea sorkuntza, ekintzailtza eta berrikuntza teknologikoko proiektuetan.

2017an onartu egin zen Lanbide Heziketako berrikuntza proiektuen deialdia. Horietatik, 2017/2018 ikasturtean onartutako laurak garatu dira: Ur bero sanitarioa eta elektrizitatea energia berriztagarrien bidez hornitzea “Huarte” BHI ikastetxearen 2. eraikinean, biki digitalak eraikitzea eta urruneko laborategia, web aplikazioen garapeneko prestakuntza proiektuetan oinarritutako ikaskuntzaren eta ikaskuntza-zerbitzuaren bidez: Iruña Beltza literatur jaialdiaren webgunea sortzea eta 4.0 industriarako prestakuntza mekatronikoa.

Berrikuntza teknologikoaren testuinguruan, irakasleek mugikortasun ekintza bat egin dute Danimarkan, azken teknologien ezagutzan eta robotikaren arloko aplikazioan oinarritua. Arlo horretan ere berrikuntza ekintzak egon dira Siemens enpresak sustatzen duen prototipoen

proiektuen nazioarteko lehiaketan. Halaber, Lanbide Heziketan "skill" lehiaketetan ere parte hartu dute. Nafarroako lorezaintzako domina irabazi zuena Txinako erakustaldi lehiaketetan eta Abu Dabiko Worldskills munduko txapelketan egon zen, haren tutore-prestatzailearekin batera. Spainskills 2019rako deialdi berrirako partaideen hautaketa eta prestaketa ere hasi da.

Horrez gain, G2 mugez gaindiko lankidetzaren taldean ere parte hartzen da, Lanbide Heziketako ikastetxeetako berrikuntzara bideratutakoan.

Sorkuntzako eta ekintzaitzari bideratutako beste jarduketari dagokienez, hiru ekitaldi egin dira; Berrikuntza, Sorkuntza eta Ekintzaitzaren astea. Bertan 1.000 ikaslek eta 70 irakaslek baino gehiagok hartu zuten parte, eta hainbat edizioaren ondoren finkatu egin da, ia ikastetxe guztiek hartu baitute parte. Horrez gain, BSE astea baino lehen, Ekintzaitzaren Jardunaldi bat egin zen, Lanbide Heziketako zuzendaritza taldeei eta LPOko irakasleei bideratua, gai horretako sentsibilizazioa handitzeko. Aurrekoaz gain, negozio ideiei buruzko prestakuntza pilula bat antolatu da. Horrez gain, mugez gaindiko ekonomia sozialeko enpresen ekintzaitzarako ETESS proiektuan parte hartu da, oinarri gisa balio izan duena ANELEkin sinatutako hitzarmen batean oinarritutako antzeko ezaugarriko proiektu bat garatzeko. 2018/2019 ikasturtean egingen da, hiru ikastetxetan, jarraitzeko asmoarekin. Azkenik, nabarmendu beharra dago "Artearekin Hazi" programa, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarekin, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin eta Barañaingo Auditorioarekin elkarlanean. Bertan, laneko arriskuen prebentzioa eta osasuna jorratzen da artearen bitartez.

Horrez gain, Lanbide Heziketan ekintzaitza sozialeko proiektu bateratu bat garatu zen, Acción contra el Hambre eta Telefónica fundazioarekin batera. 2017/2018 ikasturtean burutu zen, eta ekintzak 2018ko amaierara arte luzatu zituen, bai ikasgelako garapenari bai irakasleen prestakuntzari dagozkionak.

2018/2019 ikasturterako argitaratua da arte plastikoen eta diseinuaren eta araubide bereziko kirol irakaskuntzen lanbide heziketako ikastetxeetako hezkuntza proiektuen lehiaketak arautzen dituen araudia.



2. ARDATZA: Gure gizartearen kohesioa eta jasagarritasuna sendotzeari egindako ekarpena.

Ardatz honek biltzen ditu gure erkidegoko gizartearen eta lurraldearen kohesioari dagozkion helburuak eta jarduketa neurriak, plan honetatik bultzatu behar direnak.

2.1. helburua

Bermatzea Lanbide Heziketak erregioko jarduera ekonomikoko arlo guztietan kualifikazioko beharrak asebeteko dituela.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2017	2018	2019	2020
Hezkuntza Departamentuak eskainitako prestakuntza profesionaleko tituluen kopurua		115	118	120	122
Enplegurako emandako prestakuntzen eskaintza (landunak, langabeak, proiektu bereziak)		276	310	340	350

Helburu hau garatzean, Planak garatu beharreko honako jarduketak aurreikusten ditu:

- Hasierako prestakuntzaren eta enplegurako prestakuntzaren eskaintza urtero berrikustea, ekonomiaren alor bakoitzaren eta lurralde bakoitzaren beharretara egokitzeko.
- “Adituen talde” bat sortzea, horiekin aldizka egiaztatzeko hasierako Lanbide Heziketako prestakuntza curriculumak eta enplegurako prestakuntzaren katalogoa, egokitu beharrez sektore produktiboen eta zerbitzuetako sektoreen beharretara.
- Urtero ikerketak egitea, aztertzeke zein den hasierako prestakuntzako eta enplegurako prestakuntzako ikastaroetatik ateratakoen lan egoera, eta hori lotzeko lan merkatuko eskariekin, baliabideak berresleitzeko.

Prestakuntza eskaintza sektore produktiboen eta Nafarroako eremuen beharrei egokitzeko funtsezko ekintzetako bat da urtean prestakuntzaren eskaintza eta eskaria doitzeko analisia egitea, bi ikuspegiak egokitzen saiatzeko, betiere jasagarritasunaren eta eskaintza arrazionalizatzearen ikuspegitik. Halaber, 2018/2019 ikasturtean onartzeko prozesuaren azterketa egin du, dagozkion matrikulazio datuekin, hurrengo urteko eskaintzari lotutako erabakiak hartzeko.

Eskaintzaren analisi orokorraren barnean, ezinbestekoa da enpresa munduko adituekin elkarlanean aritzea, haiek informazioa eman baitezakete prestakuntza eskaintza jakin batzuen egokitasunaren inguruan, edo hori egiaztatu baitezakete, bai eskaintzaren eta eskariaren arteko doikuntzagatik bai curriculumaren profilen egokitasunagatik. Azken alderdi horri dagokionez, aurretik aipatutako alderdiak alderatzeko aditu talde bat osatzen doa. Hasierako Lanbide Heziketaren alorrean, 2018an harreman estuak sortu dira elektromedikuntzako eta industria sortzaile eta digitaletako adituekin, prestakuntzako eskaintzaren egokitasunaren inguruko gaiak eta eskaintza eta eskaria egokitzekoak jorratzeko.

Horrez gain, hainbat ikerketa ekintza egin dira, zenbait kolektiboren prestakuntza beharrak ezagutzeko, prestakuntza modalitate egokienarekin jorratzeko. Adibidez, CERMINEkin eta

NHBBZekin, hezkuntza behar bereziak dituzten pertsonendako prestakuntzak diseinatzeko (Lanbide Heziketa Bereziko zikloak). Halaber, lan egin da hainbat Tokiko Garapen Agentziarekin (adibidez, Sakana, Estellerria, Erriberagoiena), eskualde horietan behar den prestakuntza aztertzeko.

Hasierako Lanbide Heziketako prestakuntza eskaintzari dagokionez, Hezkuntza Sailak 2017/2018 ikasturterako eskainitako titulazioak 16 ziklo izan ziren oinarrizko Lanbide Heziketan, 38 ziklo erdi mailakoan, eta 57 ziklo goi mailakoan, baita 4 lantegi profesional eta Lanbide Heziketa Bereziko 8 ziklo ere. 2018/2019 ikasturtean eskaintzen dira oinarrizko Lanbide Heziketako 16 ziklo, erdi mailako 36, goi mailako 57, 4 lantegi profesional eta Lanbide Heziketa Bereziko 13 ziklo.

Enplegurako prestakuntzari dagokionez, 2017an 15.839 partaide izan zituen, eta 2018an 20.624 izan dira, honela banatuta:

ENPLEGURAKO LANBIDE PRESTAKUNTZA	2017		2018	
	IKASTARO KOP.	PART. KOP.	IKASTARO KOP.	Part. kop.
Sindikatuena eta enpresariena planak	448	6.209		
Gizarte Ekonomiaren planak	53	585		
Plan autonomoak	21	277		
Ikastetxeetako planak				
LANDUNAK, GUZTIRA	522	7.071	642	9.630
Langabeak	137	1.932	54	784
Langabeak (HEZKUNTZA)	65	958	15	225
LANGABEAK GUZTIRA	202	2.890	69	1.009
GUZTIRA	724	9.961	711	10.639

Iturrondo Zentroa	276	4.140	387	8.570
CENIFER	36	587	36	540
GUZTIRA	1.036	14.688	1.134	19.749

Proiektu bereziak	32	568	33	495
Konpromisoa	15	319	13	82
Enpresa txiki eta ertainak (ETE)	24	264	28	298
GUZTIAK OSOTARA	1.107	15.839	1.208	20.624

Nafarroako Enplegu Zerbitzutik, nabarmendu behar da 2018an 33 ikastaro eskaini zirela Proiektu Berezien programan. Haien helburua da erantzun azkarra ematea sektoreen, eremuen edo enpresen eskariei. Programatutako prestakuntza ekintzak behar espezifikoaren ingurukoak izan dira. Beste batzuk, oinarrizko gaitasun teknikoaren prestakuntzara bideratuta egon dira, eta, beste batzuk, kudeaketa ekintzetara edo ekintza espezializatuagoetara. Ikastaro horiek nagusiki Erriberan, Pirinioetan eta Pirinio aurreko eskualdeetan garatu dira. Jarduketa horiek guztiak prestakuntza

hurbildu egiten dute, alde horietan enplegua sustatzeko; izan ere, enpresei aukera ematen die langile prestatuak topatzeko eta langile poltsak sortzeko guneko profiletara prestakuntza egokitua duten langileekin. Ikastaroak gaitzeko eta gaitasunak eguneratzekoak dira.

2.2. helburua

Lanbide Heziketako ikasketak bermatzea hala eskatzen duten eskualdeetan.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2017	2018	2019	2020
Iruñetik eta Iruñerrikanpo eskainitako hasierako Lanbide Heziketako taldeen ehunekoak.		28	29	31	33
Iruñetik eta Iruñerrikanpo Nafarroako eskaintza orokorrarekin alderatuta eskainitako hasierako Lanbide		31	31	32	33
Euskaraz eskainitako edo emandako tituluen ehunekoak.		15	18	19	20

Helburu horretan planteatu zen eremuen beharrei erantzutea haien lan merkatuari zegokienez, baita lurralde kohesioa mantentzeko ikuspegitik ere. Horretarako, garatu beharreko hainbat jarduketa ikusi ziren:

- Iruñerrikanpo kokatutako herrietako prestakuntzako eskaintza egokitzea, ikasleen ratioa eremu bakoitzeko egoera demografikora doitzuz.
- Euskarazko Lanbide Heziketako prestakuntzaren eskaintza egokitzea.
- Praktikak eta Lanbide Heziketa Duala lurraldeko edozein eskualdetan sustatzea.
- Lanbide Heziketako eskaintzen beste modalitate batzuk garatzea: urrutikoa, modularra, erdi presentziala eta abar.

Eraginaren adierazleei dagokienez, azken bi ikasturteetan jasotako emaitzek honako datu hauek agertzen dituzte:

Eraginaren adierazleak:	2017	2018
Iruñetik eta Iruñerrikanpo eskainitako hasierako Lanbide Heziketako taldeen ehunekoak.	% 33,1	% 37,3
Iruñetik eta Iruñerrikanpo Nafarroako eskaintza orokorrarekin alderatuta eskainitako hasierako Lanbide	38,1%	40,7%
Euskaraz eskainitako edo emandako tituluen ehunekoak.	16,2%	18,5

Datu horiek irakurrita, ondorioztatu daiteke hasierako Lanbide Heziketako ikastaroak egiteko plazen eskaintza handiagoa dela Iruñetik eta Iruñerrikanpo hiriburuan bertan baino, pertzepzio orokorra gorabehera. Gainera, eremuetako zikloen eskaintza askotarikoa da (hain zuzen, Iruñerrikanpo ziklo ezberdinen presentziaren ehunekoa igo egiten da), nahiz eta ikasleen ratio txikiagoekin lan egiten den. Horrek lurraldearen kohesioaren aldeko apustu garbia erakusten du.

Euskarazko Lanbide Heziketaren eskaintzari dagokionez, bete dira euskaraz eskainitako titulu ezberdinen ehunekoen aurreikuspenak. Dena den, gaineratu beharko litzateke, euskaraz eskaintzen diren ikasle taldeen ehunekoak aztertzean, % 7,75 zirela 2017/2018 ikasturterako, eta % 8,39 2018/2019 ikasturterako. Balizko eskaintza baloratzen jarraitzen da, eta Eusko Ikaskuntzak

Nafarroan euskarak duen presentziaren inguruan egindako ikerketa bat aztertzen ari da, analisi elementu zorrotzak eduki ahal izateko.

Lurraldeko edozein eskualdetan praktikak egin ahal izatea sustatzeari dagokionez, bai Lantokietako Prestakuntzaren fasean bai prestakuntza dualean, malgutu egin da ekintza horiek Nafarroako edozein lekutan egiteko aukera, edozein dela ere ikastetxearen kokapena. Prestakuntza praktikoko hori beste autonomia erkidego batzuetan edo Europan egiteko aukera ere malgutu egin da. Informazio moduan eta egoera horren adibide gisa, 2017/2018 ikastaroan hainbat modalitateko prestakuntza praktikak egiteko enpresekin sinatutako 841 hitzarmenetatik, % 30,32 Iruñerrikan kokatutako enpresekin sinatu ziren.

Mailaka igotzen ari dira egiteko interesa duten pertsonen prestakuntzarako sarbidea malgutzen duten eskaintzak, bai sareko prestakuntzaren bitartez bai eskaintza erdipresentzialen bidez. 2017/2018 ikasturtean erdi mailako hiru zikloko eta goi mailako zazpi zikloko eskaintza zegoen sarean, eta igo egin da. 2018/2019 ikasturtean goi mailako bi ziklo gehiago daude. Horik guztira, 1.000 ikasletik gora biltzen dituzte. Eskaintza erdipresentzialari dagokionez, ikasturte honetan Erizaintzako Zaintza Osagarrien erdi mailako bi ziklo egin dira, baita Gizarte Integrazioko goi mailako bat ere.

2.3. helburua

Lanbide Heziketa bukatzen duten ikasleen kopurua handitzea

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2017	2018	2019	2020
Oinarrizko Lanbide Heziketako (1. maila) ikasketak uzten dituen ikasle kopurua		47	35	25	15
Erdi mailako Lanbide Heziketako (2. maila) ikasketak uzten dituen ikasle kopurua		25	20	15	10
Goi mailako Lanbide Heziketako (3. maila) ikasketak uzten dituen ikasle kopurua		16	13	10	5
Lanbide Heziketako ikasketak uzten dituen eta hezkuntza behar bereziak dituen ikasle kopurua		5	4,5	4	3,5
Hezkuntza behar bereziak dituen eta ikasketetara erreserba kupotik sartu den ikasle kopurua			90	92	95
Bigarren aukerako proiektu egikarrituen kopurua			2	3	4

Hezkuntza maila guztietan, helburu ukazina da eskola uzten duen ikasle kopurua murriztea. Lanbide Heziketaren kasuan, lehentasunezko alderdi gisan identifikatu da ikasketetan titulazten den ikasleen ehunekoa handitzeko beharra, egun nahi baino balio txikiagoak baitira horiek. Horrez gain, eskola sistema uztean enpleguaren alorrean garatutako prestakuntza programek hartzen ez duten ikasle kopurua murriztu beharra dago.

Planean jasotako adierazleen jokabideak honako emaitza hauek ditu:

Eraginaren adierazleak:	2016-2017	2018/2019
Oinarrizko Lanbide Heziketako (1. maila) ikasketak uzten dituen ikasle kopurua	% 38,40	% 22,40
Erdi mailako Lanbide Heziketako (2. maila) ikasketak uzten dituen ikasle kopurua	% 24,28	% 22,42
Goi mailako Lanbide Heziketako (3. maila) ikasketak uzten dituen ikasle kopurua	% 15,85	% 16,70
Lanbide Heziketako ikasketak uzten dituen eta hezkuntza behar bereziak dituen ikasle kopurua	-	% 2,66
Hezkuntza behar bereziak dituen eta ikasketetara erreserba kupotik sartu den ikasle kopurua	100	100
Bigarren aukerako proiektu egikarrituen kopurua		2

Alderdi horri dagokionez, Planak proposatzen zuen txosten honen aldiaren eragiten zuten jarduketaren garapena, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Hezkuntza Sailaren arteko koordinazioa indartzeko, prestakuntza prozesuak uzten dituen ikasle kopurua murrizteko eta bi eremuen arteko ibilbide koordinatuak errazteko. Alde horretatik, ez da aurrerapen berezirik lortu lantegi profesionalak egituratzean.

Hezkuntza premiak dituzten ikasleei dagokienez, adierazle gisa nahiago izan da bildu Lanbide Heziketan eskolaratzea eskatu eta lortu duten ACNEE ikasleen ehunekoak: % 100, Lanbide Heziketa Bereziko zikloen eskaintzak eskariaren % 100 asetzen baitu, 14 espezialitate garaturik.

2.4. helburua

Prestakuntza kolektiboen beharrei egokitzea Lanbide Heziketan errazago sar daitezten.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:			
	2017	2018	2019	2020
Hezkuntza laguntzaren aldetik premia bereziak dituzten pertsonen kopurua, hasierako Lanbide Heziketan matrikulatua	12	13	14	15
Desgaitasuna duen jendearen enplegurako ekintzak		2	4	6
Gaitasun Profesionala Ebaluatzeko eta Egiatzatzeko prozesuetako parte hartzaileak	200	250	300	300

Planean jasotako ekintzen artean, garatu beharrekoak honela zeuden zehaztuta:

- Lanbide Heziketa Bereziko premiei erantzuteko neurriak sustatzea.
- Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten beste kolektibo batzuei Lanbide Heziketatik erantzuteko bermea.
- Abian jartzea informazio, orientazio, prestakuntza eta laneko bitartekaritzako ekintza guztietan irisgarritasuna bermatuko duten neurriak.
- Helduendako hasierako Lanbide Heziketako ekintzak malgutzea.
- Langileak birkalifikatzeko eta prestakuntza gabeziak hautemateko gaitasuna egiazatzeko prozedura sustatzea.

Lanbide Heziketan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen presentziari dagokionez, 2017/2018 ikasturtean talde hori ikasleen % 2,80 da, eta 2018/2019 ikasturtean Lanbide Heziketako ikasleen % 2,42 dira. Dena den, nabarmendu beharra dago 2018/2019 ikasturtean, Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzan, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen % 71,29 daudela Lanbide Heziketako irakaskuntzetan matrikulaturik. Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzan, hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei erreparatzen badiegu, % 60,75 Lanbide Heziketan matrikulatuta daude.

Alde horretatik, adierazi beharra dago 2018/2019 ikasturtean Lanbide Heziketa Bereziko 14 zikloko eskaintza osatu dela, eta hainbat curriculum egokitzapen onartu direla ziklo batzuen egitura hobetzeko eta ikasleen enplegarritasuna indartzeko. Enplegurako prestakuntzaren alorrean, ikastaro espezifikoak egin da desgaitasuna duten ikasleentzat, eta 16 pertsonak hartu dute parte Merkataritzako Jarduera Osagarrien ziurtagirian.

Nabarmendu beharra dago, orobat, Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Hezkuntza Departamentuaren elkarlanari esker, diseinatu eta abiarazi dela bakarrik dauden etorkin adingabeak artatzeko plan bat, halakoei prestakuntza profesionala eman nahirik, aukera izan dezaten gizarteratzeko eta laneratzeko, eta prestakuntza sisteman modu normalizatuan sartzeko.

Ahalegin berezia egin da desgaitasuna duten ikasleendako prestakuntza aukera egokiak hautatzen laguntzeko informazio eta orientazio neurriak indartzeko. Horretarako, orientazio gida bat eta beste zenbait baliabide sortu dira, Aniztasunari Erantzuteko Zerbitzuarekin elkarlanean, prestakuntza orientatzeko, arrakastaren bidea eta laneratzea errazteko.

Langabe helduen, berrorientazio profesionala behar dutenen eta titulazio edo ziurtapen akademikorik ez dutenen prestakuntza beharrak asetzeko malgutze neurriak hartzeari dagokionez, ekintzak egin dira, sareko urrutiko eskaintzaren eta teknikari edo goi mailako teknikari titulua eskuratzeko proba libreen bitartez. Ekintza horietan 1.250 lagunek baino gehiagok hartu dute parte.

Azkenik, gaitasun profesionala ebaluatzeko, aitortzeko eta egiaztatzeko prozedurari dagokionez, 2017an berrikuntza handia egin zen prozeduraren deialdian: bertan izena emateko aukera irekita zegoen modu iraunkorrean, aurrekontuan zuzkidura aski zegoen bitartean, eta profil jakin bateko eskatzaileen eskari txikiegia hautematen ez zen artean. Deialdi horretan, 700 lagunek baino gehiagok adierazi zuten interesa zutela bertan parte hartzeko, eta, azkenean, 418k hartu zuten parte. Horietatik, 177k 2017an amaitu zuten prozedura, eta gainerakoek 2018an.

2018an egindako deialdian, aurrekoaren ezaugarri berberekin, txosten hau burutu orduko (kontuan ha deialdi irekiaren ezaugarriak) 741 lagunek adierazi dute interesa, horietatik 322k hasi dute prozedura, eta azken horietatik 215ek burutu dute 2018an.

Ahalegin garrantzitsua egin da deialdien hedapena hobetzeko eta hautagai izan daitezkeen pertsonen zuzendutako informazioa zabaltzeko, azkenean prozeduran parte hartzeko eskatu dutenek hobeki ezagutu dezaten zein izaera duen eta zein aukera eskaintzen dituen.

2.5. helburua

Sarean lan egitea, bizitzaren joan-etorrian lanbide prestakuntza eta kualifikazioko jarduketan koordinazioa hobetzeko.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2017	2018	2019	2020
Ikastetxe integratuetako gizarte kontseiluen bilerak		28	32	36	40
Nafarroako Kontseiluaren edo batzorde delegatuen bilerak		7	13	16	16

2016/2017 ikasturtean 30 bilera egin zituzten Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetako gizarte kontseiluek, eta 2017/2018an 26 mantendu dira. Gizarte kontseilua ikastetxe integratuetako partaidetza sozialerako kide anitzeko organoa da. Bertan, ordezkariak dute hezkuntza eta lan arloko administrazioek eta eragile ekonomiko eta sozialetakoek. Errealitatea erakusten ari zaigu gizarte kontseiluak ez direla ikastetxe guztietan funtzionatzen ari, nahi zen moduan behintzat. Horregatik, beharrezkoa da are indar handiagoz ikusaraztea organo horrexen ardura dela ikastetxea bere ingurunean zabaltzea, eta ikastetxearen, enpresaren eta langileen arteko elkarlanerako tokia izatea, bereziki, gizartearekiko elkarlanerako tokia, alderdi guztien onurarako. Lanean ari gara eragile ekonomiko eta sozialen ordezkariak gehiago inguratzeko ikastetxeen eremuetako egoera geografikora, gizartearenera eta lanekora. Aurrerapenak lortu dira alde horretatik.

Lanbide Heziketako Nafarroako Kontseiluari dagokionez, 2017ko uztailean Kontseiluaren osaera eta funtzionamendu berria ezartzen duen foru dekretua onartu zen. Urte horretan bi osoko bilkura egin zituen. Egiatzapen Batzordeak ere, gai horretan Kontseiluaren ordezkari denak, bi bilera egin zituen 2017an. 2018an, beste bi osoko bilkura egin dira, eta Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek eta Egiatzapen Batzordeak ere beste bi bilera egin dituzte bakoitzak. Jarduera, beraz, aurreikusitako adierazleaz azpitik dago, bereziki agendak bateratzeko zailtasunagatik, baina horrek egiaz ez du irudikatzen administrazio arduradunen arteko koordinazio maila, ezta gainerako eragile ekonomiko eta sozialekin dagoena ere.

2.6. helburua

Lanbide Heziketa egin ondok lana lortu duten ikasleen kopurua handitzea

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2017	2018	2019	2020
Lanbide Heziketatik ateratzen diren ikasleen laneratzearen ehunekoa, ikasketak burutu eta hurrengo 12 hilabeteetakoak		49	57	70	75
Lanbide Heziketatik ateratzen diren eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen laneratzearen ehunekoa, ikasketak burutu eta hurrengo 12 hilabeteetakoak		40	45	50	75

Asmoa zen helburu hori erdiestea lehentasunezko zenbait jarduketaren bidez:

- Eskaintza lan merkatuko beharretara egokitzeko neurriak ezartzea.
- Kualifikazio, enplegarritasun eta laneratze espezifikoko ibilbide sistematikoak garatzea Lanbide Heziketatik titulatura atera eta informazio, orientazio,

prestakuntza eta laneko bitartekaritzako ekintzak nahi dituztenentzat, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin batera.

- Prestakuntza ikastaroak egitea, enpresen eskari espezifikoari erantzuteko.

Alde horretatik, Nafarroako Enplegu Zerbitzuen orientazio zerbitzuak sakon birplanteatu dira, eta aurreikusi da oso aurrerapen adierazgarria erdietsiko dela zerbitzu mota hori ematean, enplegagarritasuna hobetze aldera. Aurreko ataletan adierazitako ekintzen bidez, erreferentzia egin zaio enplegagarritasuna hobetzea helburu duten zenbait jarduketari. Horietako batzuk dira curriculumak egokitzea, lan munduko adituekin elkarlanean aritzea prestakuntza definitzean eta ematean, ikastetxearen eta enpresaren arteko elkarlana lantokian prestakuntza emateko eta eskaintza dualerako, prestakuntzako eskaintza aztertzea eta abar.

Lanbide Heziketatik titulatura ateratzen diren ikasleen hamabi hilabeterako laneratze ehunekoaren adierazleak 2017/2018 ikastaroko emaitza moduan erakusten du laneratzea % 51,72 dela, erreferentzia moduan hartzen bada titulatura ateratako ikasleen kopuru osoa. Erreferentzia moduan hartzen bada ikasten jarraitzen ez duen ikasle kopurua, ehunekoa % 83,6ra igotzen da.

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei dagokienez, jarraipena egiteko datuak zailak dira lortzen eta baloratzen eta, horrez gain, prestakuntzako eskaintzak aldatu egin dira, Hasierako Kualifikazio Profesional Bereziko Programetatik iraupen handiagoko Lanbide Heziketa Bereziko ziklotara pasatu baita. Haien lehen promozioak 2019/2020 ikasturtean amaitzen dira, eta, ondorioz, zaila da datuak interpretatzea. 2017/2018 ikasturtean, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroak bere erabiltzaileekin laneratzeari buruz laginketaren bidez orain arte egindako jarraipenaren arabera, % 32 dira landunak. Lan egiten ez dutenen artean, % 48 beste prestakuntza batzuetan dago.



3. ARDATZA: Lanbide Heziketa indartu eta etengabe eguneratzea.

Ardatz honek jasotzen ditu zein helburu eta zein jarduketa neurri behar diren Lanbide Heziketa egokitzeko Zentro Integratuek eta Estatuko Erreferentziazko Zentroek dituzten beharretara eta eskaini behar dituzten zerbitzuetara.

3.1. helburua

Lanbide Heziketarako azpiegiturak eta teknologiak egokitzeko baliabideak handitzea.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2017	2018	2019	2020
Eraikuntza obretako eta instalazioak birgaitzeko inbertsioetara bideratutako bolumen ekonomikoa (milaka eurotan)		2.576	1.090	9.320	3.000
Ekipamendu teknologikoak erosteko inbertsioetara bideratutako bolumen ekonomikoa (milaka eurotan)		810	1.750	2.450	2.500

Planteatutako helburua betetzeko, Planak honako jarduketa hauek planteatzen ditu:

- Azpiegiturarako, ekipamenduetarako eta instalazioetarako zuzkidurak handitzea aurrekontuetan.
- Enpresen lankidetzaren indartzea ekipamenduak modernizatzeko.

Aurreko hamarkadaren amaieran jasandako krisi ekonomikoaren ondorioz, nabarmen jaitsi zen azpiegituretako, instalazioetako eta ekipamenduetako inbertsioa Lanbide Heziketako ikastetxeetan, eta horrek oso eragin negatiboa izan zuen irakaskuntza horietan, ahalik eta lerrokatuena egon behar baitira inguru produktiboak eta zerbitzuenak une bakoitzean dituen eskari teknologikoekin. Gaia kokatzeko, oroitarazi behar dugu 2008an ekipamenduaren inbertsioa 1,7 milioi eurotan baino gehixeagotan zegoela, eta 2012an 372.000 eurotaraino murriztu zela.

Azken urte hauetan, oso ahalegin handia egin da egoera horri buelta emateko eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako azpiegituretan beharrezko hobekuntzak egiteko. Beraz, segurtasuneko eta eraginkortasun energetikoko irizpideen arabera mantentze lanei eta hobekuntzei dagokionez, 2017an 11 ikastetxetan egin ziren esku hartzeak, eta zenbatekoa ia 260.000 eurokoa izan zen; 2018an, 10 esku hartze egin ziren, 860.000 eurotik gorakoak.

Halaber, azpiegitura berriak eraikitzeari eta espazio eta instalazio berriak sortzeari eta egokitzeari dagokionez, 2017an esku hartzeak egin ziren 5 ikastetxetan, ia 2.000.000 eurokoak, eta 2018an 3 ikastetxetan egin dira esku hartzeak, 417.000 euroko inbertsioarekin.

Ekipamenduan egindako inbertsioari dagokionez, 2017an 800.000 euro baino gehixeago inbertitu zen Lanbide Heziketako ikastetxeetan, baina, 2018an, kontzeptu beragatik egindako inbertsioa 1.650.000 euro heldu zen. Horren zati txiki bat erabili da ekipamenduak laneko arriskuak prebenitzeko indarrean dagoen araudira egokitzen.

Ikastetxeetako ekipamendua modernizatzean enpresek eskainitako lankidetzari dagokionez, nahikoa elkarlan ohikoa dago enpresen eta ikastetxeen artean, eta lehenek bigarreni ekipamendu erabilgarria ematen die (ibilgailuak, robotak, berritutako ekipamenduak eta abar), ikasleen praktikak

errazteko.

3.2. Helburua

Berrikuntza etengabea bermatzea arlo pedagogikoan.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2017	2018	2019	2020
Metodologia pedagogiko berriak aplikatzen dituzten ikastetxeen ehunekoa		75	85	95	100
“Kimua” programa aplikatzen duten ikastetxeen ehunekoa		-	15	30	50
Aplikaturako berrikuntza metodologikoko programetan dauden taldeen ehunekoa		8	20	35	50

Lanbide Heziketa berritzeko beharra ez dagokio soilik teknologiari: behar beharrezkoa da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari berera hedatzea, bertan modu inplizituan garatzen baitira egun lan profesionala modu egokian egiteko beharrezko gaitasun transbertsal ugari.

Horregatik, planteatutako helburua betetzeko, Planak honako jarduketara hauek planteatzen ditu, erreferentzia modura:

- Ikasleak gaitasun transbertsal eta digitaletan prestatzea sustatzea.
- Berrikuntza pedagogikoa bultzatzea, irakaskuntza-ikaskuntza metodologia aktiboak erabiliz.
- Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboaren metodologiaren aplikazioa bultzatzea, Lanbide Heziketako ikastetxeetako eredu pedagogiko moduan.
- Beste ikastetxe eta antolakunde batzuekin jardunbide egokiak eta berrikuntza pedagogikoko eta teknologikoa partekatzea.

1.5. helburuan dagoeneko aipatu dira gaitasun transbertsalen prestakuntzarekin lotutako zenbait gai, bereziki berrikuntzarekin eta ekintzaitzarekin lotuak. Gaitasun transbertsalak modu sistematikoan hobetu nahi dira, gainera, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboaren metodologiak txertatuz. Ikasleen gaitasun digitalak sustatzea hein handi batean lotua dago 4.0 teknologiak prestakuntzara txertatzearekin: dena den, aurreikusi da hurrengo ikasturteetan definitzea garatu beharreko gaitasun digitalen katalogoa eta hari lotutako prestakuntza programa.

Berrikuntza pedagogikoari dagokionez, bultzada handia eman zaio proiektuetan oinarritutako ikaskuntza kolaboratibo sustatzeari, arlo horretako berrikuntzarako funtsezko tresna gisa. Horrez gain, abian jarri da Kimua proiektua, dagokion arazko euskarriarekin batera. Haren helburua da metodologia aktiboak sustatzea Arte plastikoak eta diseinua eta Araubide bereziko kirol irakaskuntzak ematen dituzten Lanbide Heziketako ikastetxeetan. Hona hemen metodologia horren oinarria: ikasleari proiektu, arazo edo egoera bat aurkezten zaio konpon dezan, edo lortu behar duen helmuga edo helburu bat planteatzen zaio. Horrela, Kimua programak gaitasunak sustatzen ditu ikasleei aukera emanen dieten arazo zailtasuna neurtzeko, bestelako estrategiak erabiltzeko eta norberaren aurrerapena baloratzeko tresnak.

Gainera, metodologia hori aplikatzeko, 2017/2018 ikasturtean hainbat ikastetxetan esperimentatzen hasi zen, eta 2018/2019 ikasturtean, guztira, Lanbide Heziketako 27 ikastetxe sartu

dira, 20 publiko eta 7 itundu. Horietatik bostek garapen aurreratuagoa dute, eta, nolabait, “ikastetxe pilotuak” direla erraten ahal da. Horietako bakoitzean pertsona bat izendatu da sarearen “koordinatzaile” moduan. Aurrekoak berekin dakar ikastetxeen ia % 100ek programarekin bat egin izana, baina proposamen metodologiko berria ez da neurri berean aplikatu horietan guztietan. Hain zuzen, araudiak aurreikusten du sarea lau mailatan hedatzea, ikastetxe bakoitzeko garapenaren arabera.

Figura bat sortu da bost ikastetxe pilotutan metodologia berriak aplikatzeko ekintzak koordinatzeko, sustatzeko eta horien jarraipena egiteko, eta, gainera, beste figura bat ezarri da Kimua sarean sartutako ikastetxe bakoitzean, antzeko funtzioekin. 2017-2018 ikasturtean 26 dinamizatzaile egon dira.

Halaber, 2016-2017 ikasturtetik ahalegin berezia egin da irakasleei prestakuntza emateko eredu metodologiko horren inguruan: 2016-2017 ikasturtean 115 irakaslek jaso zuten prestakuntza, eta 2017-2018 ikasturtean 123 irakasle izan ziren. Era berean, koordinatzaile taldeak sortzera bideratutako prestakuntza intentsiboa egin da, bereziki helburu hori duena. Ildo beretik, laguntzarako plataforma informatiko bat sortu da, ikasteko metodologia aktiboen arloko proiektuetarako eta esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzeko.

Azkenik, proiektuen lehiaketak dira metodologia horiek sustatzeko konpromisoa sostengatzen duten beste ekintza batzuk. Ekintza horiek Lanbide Heziketako ikastetxeetan irakasleek gelan egindako lana jasotzen dute. Lehiaketak Lanbide Heziketako metodologia aktiboen inguruko jardunbide egokiei buruzko jardunaldi batekin amaitzen dira. 2016-2017 ikasturtean 14 ikastetxek hartu zuten parte, eta 2017-2018 ikasturtean 12 izan ziren.

Hezkuntza Departamentuak zuzendutako ekintza horiekin batera, ikastetxeek beraiek parte hartu dute beste sail eta erakunde batzuekin, metodologia aktiboak aplikatzeko: nabarmendu beharra dago “Hazi arte” programa, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarekin, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin eta Barañaingo Auditorioarekin batera sortua, laneko arriskuen prebentzioa eta osasuna artearen bidez jorratzen duena; “ETESS” proiektua, ANELEkin batera egindakoa; eta “Ekintzailtza Lanbide Heziketan” proiektua, Acción contra el Hambre eta Telefónica fundazioekin batera garatutakoa. Horietan, ekintzailtza soziala jorratzen da.

3.3. helburua

Lanbide Heziketako ikastetxe eredu malguagoa, hots, inguruko beharrei arin erantzuteko gai izanen dena garatzea.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2017	2018	2019	2020
Eredu berriari atxikitako ikastetxeen ehunekoa		0	100	100	100

Lanbide Heziketako ikastetxe integratuek, arauzko definizioa tarteko, zenbait eginkizun berariazko dituzte, garatu beharrekoak. Horregatik, berezko funtzionamendu araudia izan behar dute, aukera emanen diena eskari horiei beharrezko arintasunez eta eraginkortasunez erantzuteko. Horrenbestez, ezinbestekoa da ikastetxe mota horrendako berezko araudi organiko bat garatzea. Araudi honen garapena gai korapilatsua da, kontuan hartu beharreko elementuak askotarikoak direlako eta planteatutako ereduak beharrezko baliozkotasuna izan behar duelako kudeaketa

helburuak betetzeko eta ikastetxeen autonomia indartzeko. Alde horretatik, ikastetxe eredu berri bateranzko bilakaera prozesuan ondoz ondoko jarduketan bidez egin behar da aurrera.

Hori egitea prozesu korapilatsua da, konektatutako beste arau garrantzitsu batzuk aldatu beharrak eragiten diolako. Arauzko esparru berria sortzeko, irakasleen jardunaldia eta ordutegia arautuko duen foru dekretu berri baterako lan egin behar da. Beraz, lantaldeek ikastetxe eredu berri horretarako beharrezkotzat jottzen diren ekarpenak egin beharko dituzte. Lantalde bat sortu da, atxikitako ikastetxe guztietako zuzendariak eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko bi ordezkariak osatua. Une honetan, Integratutako Ikastetxeen Araudi Organikoa arautuko duen foru dekretua sortzeko prozesua oso aurreratua dago.

3.4. helburua

Irakasleen prestakuntza eguneratzea, merkatu produktiboak ikasleek eskatzen dizkien kualifikazio beharretara egokitzeko.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2017	2018	2019	2020
Irakasleak eguneratzeko egindako ekintza espezifikoek kopurua		25	40	50	55
Enpresetan eguneratzeko ekintzak egiten dituzten irakasleen kopurua		12	50	150	200
Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak aratzeko prestakuntza ekintza espezifikoek kopurua			1	3	3

Lanbide Heziketako irakasleak eguneratzea behar saihestezina da, gero, ikasleen prestakuntza egokitzeko sektore produktiboen eta zerbitzuko enen eskarietara. Horregatik, zenbait jarduketa egin behar dira, irakasleek eguneratzeko aukeretan sarbidea izan dezaten.

- Lanbide Heziketako irakasleen prestakuntza plana diseinatzea.
- Lanbide Heziketako irakasleen prestakuntzarako lankidetzak hitzarmenak sinatzea unibertsitatearekin, teknologia zentroekin, beste administrazio batzuekin eta abarrekin .
- Irakasleak enpresetan birziklitzeko/egonaldia egiteko aldiak ezartzea.

Urtero, prestakuntza plana zenbait faktoreren arabera diseinatzen da. Horietako batzuk dira identifikatutako eskariak edo prestakuntza ziklo berriak txertatzea Lanbide Heziketako eskaintzan. Prestakuntza aukeren barnean, 2017/2018 ikasturtean Lanbide Heziketako irakasleei zuzendutako 56 prestakuntza ikastaro eskaini ziren.

Beste prestakuntza modalitate interesgarri bat dira enpresetako egonaldiak. Prestakuntzako ekintza horiek irakasleei aukera ematen diete eguneratze zientifiko eta teknologikoko proiektu bat garatzeko benetako lanbide ingurune batean. Horrela, industria eta zerbitzuetarako prozesuen eta teknologien etengabeko eraldaketatik datozen prestakuntza beharrak betetzen dira. Hainbat modutan aplikatu daitezkeen modalitate horretan ez da lortu nahi besteko erantzuna. Izan ere, zazpi egonaldi egon dira, espero zena baino hagitzeko gutxiago.

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak artatzekoko prestakuntza espezifikoari dagokionez,

Desgaitasunak dituzten Pertsonen Erakunde Ordezkariei Nafarroako Batzordearekin batera egin da lan, 2018/2019 ikasturtean aplikatu nahi den prestakuntzako proposamen bat diseinatzeko.

3.5. helburua

Europako ratioetan aurrera egitea Lanbide Heziketako ikasleen ehunekoan.

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2017	2018	2019	2020
Lanbide Heziketako emakumezko ikasleen ehunekoa		37	40	43	45
Lanbide Heziketako ikasleen ehunekoa		31,2	37	42	46

Lan merkatuaren prospektiba ikerketa guztiek adierazten dute azken urteetan mailaka ari dela jaisten kualifikazio apaleko enpleguen kopurua, eta lan merkatuaren % 50ek baino gehiagok beharko du lanpostu horiek betetzen dituztenek Lanbide Heziketako arloko kualifikazio maila izatea. Kalkulatu da hemendik 2025era 2,5 lanpostu inguru beteko direla, eta horietatik % 90ek elementu tekniko izanen dutela.

Nafarroan, Lanbide Heziketa egiten duten ikasleen kopurua Estatuko batez bestekoa baino hagitzez apalagoa da, eta, aldi berean, Estatukoa Europako ratioetatik urrun dago. Horrenbestez, desoreka agerikoa da lan merkatuaren eskariaren eta gure komunitatean ikasleek hautatutako prestakuntza aukeraren artean. Arrazoi ugari ditu desoreka horrek, eta horien artean nabarmenezkoa da informazio falta, bai ikasleen bai enpresaren aldetik, prestakuntza ibilbide bakoitzak ematen dituen enplegarritasun aukeren inguruan. Gainera, oraindik ere hor daude estereotipo zaharkituak, gizartean errotuta, Lanbide Heziketaren inguruan.

Horiek kontuan hartuta, ezinbestean indartu behar dira ikasleendako eta herritarrendako informazio eta orientazio ekintzak. Horretarako, hedabideetan hedapen kanpainak egiten dira, ikastetxeetan ate irekien jardunaldiak egiten dira, ikasleen topagunearen moduko ekintzetan presentzia bermatzen da, eta orientazio zerbitzuetan barnetik ere bultzada ematen zaio. Horretarako, DBHko irakasleei bideratutako prestakuntza indartu da, azken bi ikasturteetan emandako bina ikastaroren bidez.

Honako hau da aurreikusitako adierazleen jokabidea:

Eraginaren adierazleak	Lortu beharreko xedeak:	2017/2018	2018/2019
Lanbide Heziketako emakumezko ikasleen ehunekoa		% 37,05	% 38,13
Lanbide Heziketako ikasleen ehunekoa		% 33,1	% 34,8

Ikusten ahal denez, Lanbide Heziketako ikasleen artean emakumeen kopurua apur bat handitu den arren, oraindik ere nahi dugunaren azpitik dago. Taulan jasotako datuek adierazten dute Lanbide Heziketako ikasle guztien artean dagoen emakumeen ehunekoa.

Horrez gain, Lanbide Heziketan ikasten duten ikasleen ehunekoa mailaka hazten ari da, baina nahi genukeen baino mantsoago. Horregatik, orientazio profesionaleko ahaleginak indartu behar dira, eskaintzaren erakargarritasuna ere bai, eta herritarren artean ezagutza hobetzen saiatu behar

da, bereziki familietan, hobeki ezagutu ditzaten Lanbide Heziketak arrakastako esperientzia moduan eta mugarik gabeko prestakuntza ibilbide moduan eskaintzen dituen hazkunde pertsonal eta profesionaleko aukerak.

ONDORIO BATZUK

Orain arte emandako datuek bere horretan ondorioak azaltzen badituzte ere, merezi du zenbati alderdi nabarmentzea, Nafarroako Lanbide Heziketaren Plan Estrategikoa Egikaritzeko Urteko Txostenaren ondorio gisara.

1. ardatzean:

- S3 estrategiak eragin zuzena izan du Lanbide Heziketaren barnean baliabide ekonomikoak orientatzean estrategia horren lehentasunezko arloetarantz eta, aldi berean, hasierako Lanbide Heziketako ikasleak eta lehentasunezko arlo horietako enplegurako prestakuntza ikastaroen eskaintza areagotu dira.
- Nabarmen handitu da Lanbide Heziketako eskaintza, bai kualitatiboki bai kuantitatiboki.
- Prestakuntza duala ugaritu egin da mailak ikasleentzat, eta horrek hazkunde mugatua izan du, prestakuntzaren modalitate hau arautzen duen Estatuko araudia aldatzeko aurreikuspena tarteko.
- Nabarmen ugaritu da atzerrian egonaldiak egin dituzten irakasleen kopurua. Hori indartu egin da, hizkuntzen arloko prestakuntzarekin eta kanpoko enpresa kolaboratzaileen kopurua handitzearekin.
- Ikasleengan eta irakasleengan berrikuntza eta sormena indartzen jarraitu da, proiektuetarako deialdien eta berrikuntza ekintzak sustatzearen bidez, mugez gaindiko esperientziak barne.

2. ardatzean:

- Dibertsifikatu egin da Lanbide Heziketako eskaintza, titulazio eta enplegurako prestakuntza ikastaro berriak eskainiz, baita Lanbide Heziketa Bereziko zikloen katalogoa handituz ere.
- Indartu egin da hainbat antolakunderekin (CERMIN, NHBBZ, tokiko garapen agentziak, klusterrak eta abar), hainbat kolektibo eta lurralderen prestakuntza beharrak sakonago identifikatzeko.
- Enplegurako Lanbide Heziketaren arloan, arreta berezia eman zaie eskualdeetako prestakuntza beharrei, bereziki Erriberan eta Pirinio eskualdeetan, proiektu berezien bidez.
- Hazkunde diferentzial positiboa egon da, Iruñerriarekin alderatuta, Nafarroako beste eskualde batzuetako Lanbide Heziketaren eskaintzan.
- Beste prestakuntza modalitate batzuen eskaintzak handitu dira (sarekoa, erdipresentziala), ohiko eskaintza presentzialetara sartzeko zailtasun handiagoak dituzten beste kolektibo batzuetako prestakuntza eskainiz.
- Nabarmen murriztu da oinarritzko Lanbide Heziketako eskola uztea, hobetu egin da erdi mailan, eta apur bat okertu da goi mailan.
- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eskariaren % 100 betetzen da, eta ziklo horietarako onartutako curriculumak 14ra igo dira. Banakako ikastetxeetarako curriculum egokitzapenak erraztu dira, eta enplegurako prestakuntzaren eremutik eskaintza berariazkoak egin dira.

- Orientazio profesionala aunitz indartu da orientatzaileendako egindako prestakuntza espezifikoa bidez eta kolektibo horri bideratuta gida espezifikoa argitaratuz.
- Bide ez formaletatik eskuratutako gaitasunak egiaztatzeko prozesuak zabaldu egin du aintzatesteko profil profesionalen eskaintza eta prozedura horretan parte hartzeko eskainitako ikaspostu kopurua.
- Lanbide Heziketako partaidetza organoetako jardueran ez da lortu nahi besteko maila, baina haien partaideen ordezkartzan hobekuntzak egin dira.
- Lanbide Heziketako ikasleen laneratzea hobetu da, eta % 80tik gorakoa da.

3. ardatzean:

- Lanbide Heziketako ikastetxeetako azpiegituretako eta ekipamenduetako inbertsioa franko hazi da, aurreko aldietan metatutako gabezietatik ateratzeko.
- Irakaskuntzan teknologia berriak aplikatzea indartu da, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboaren bidez. Kimua proiektuak laguntza eta estaldura ematen dio eredu hori hedatzeari. Eredu hori aplikatzeko ahalegin handiak egin dira, irakasleak prestatzen eta haiei laguntza ematen ikastetxeetako dinamizatzaileen eta koordinatzaileen bitartez.
- Gogotik egin da lan, ikastetxeetako zuzendaritzekin batera, ikastetxeen eredu berria sustatuko duen araudia diseinatzeko, ikastetxe integratuen araudi organikoaren bidez, eta oso garatua dago jada, dakarren konplexutasuna gorabehera.
- Irakasleendako prestakuntza ekintza berariazkoak ugaritu dira, nahiz eta ez den nahi bezainbateko maila lortu enpresetako egonaldien bidezko prestakuntzan.
- Lanbide Heziketa hautatzen duten ikasleen kopuruak hazten jarraitzen duen arren, oraindik ere Europako estandarretatik urrun gaude, eta Lanbide Heziketan emakumeak duen presentzia apala da oraindik, pertsonekin lan egiten duten lanbideetan kontzentratuta, gainera.



Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

